

ASTEAZKENA

2017/12/06
5. urtea, 781. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €



«Antzeman nuen gabezia zientifikoa zegoela euskal mitoen inguruan»

URTZI REGERO
EUSKAL FILOLOGIAN
DOKTOREA

Goi-Nafarrera Arkaiko eta Zaharraren testuak aztertuz egin du tesia // 6

‘Errepressió’ antzerki lana eskainiko du Hodei Arrastoak Institut del Teatreko ikasleekin

Zizurkildarrak larunbatean taularatuko du Bartzelonako ikaskideekin batera, errepresioaz gogoeta egiteko antzezlan, Atxulondo kultur etxean. Bi saio eskainiko dituzte; 18:00etan eta 20:00etan, eta sarrera doakoa izango da // 4



ITZEA URKIZU ARSUAGA

TOLOSA ARTXIBOA KLIMATIZATZERA

Gipuzkoako Artxibo Orokorra klimatizatzeko eraberritzea abiaraziko du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Aurretik, ate irekien jardunaldiak izango dira bihartik larunbatera bitarte, San Frantziskoko eraikinean // 2

«Etxaniz ni nekatzen saiatuko da, eta ni bera mugitzen ahaleginduko naiz»

MAIDER MENDIZABAL
PILOTARIA // 5



ATARIA



Dokumentuak erakustearekin batera, artxiboko ikerketa eta birgaitze taldeak ere beren azalpenak eman zituzten agerraldian. I. URKIZU

Ate irekiak izango dira artxiboan, obrak hasi aurretik

Gipuzkoako Artxibo Orokorra klimatizatzeke eraberritzea abiaraziko du aldundiak

Itzea Urkizu Arsuaga

Dokumentu historikoak bildu, mantendu eta zabaltzea da Gipuzkoako Artxibo Orokorren egiteko nagusia eta, besteak beste, lurraldeko agiri ofizial gehien aterpe da Tolosako San Franzisko pasealekukoa. Eraikina 1989. urtean eraberritu zuten, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eraberritze energetiko bat abiaraziko du bertan, erakundeko Kultura eta Ingurumen sailen elkarlari esker. Obrak hasi aurretik, ordea, artxiboa ezagutzeko ate irekien egunak izango dira, bihartik larunbatera bitarte.

Denis Itxaso Kultura diputatua eta Jose Ignacio Asensio Ingurumen diputatua izan ziren agerraldian, eta biek ala biek azpimarratu zuten esku-hartzearen garrantzia: «Bazen garaia, artxiboko dokumentuek zaintza handia eskatzen baitute. Poztekoa da, gainera, eraberritzea bi sailen arteko elkarlaren fruitu izatea», zehaztu zuen Asensiok.

Hamabi hilabeteko epea hartuko du eraberritze energetikoak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bere eraikinetako energia aurrezteko nahiz energia berriztagarri bilakatzeko aurreikusitako proiektuen artean da artxibokoa. Horrela, 1.072.000 euroko aurrekontua izango dute obrek, eta Ingurumen eta Kultura sailerako aurrekontuetatik finantzatuko dute eraberritzea.

Gipuzkoako Artxibo Orokorren eraikinak 3.000 metro koadroko azalera du, eta erdia baino gehiago hartzen dute dokumentuak gordetzeko zortzi deposituek; biltegitratze gaitasunaren %60 inguru da hori. Bertan, dokumentuen antzinatasuna eta fintasuna kontuan hartuta, ezinbestekoa da baldintza klimatologiko zehatz batzuk urte osoan mantentzea. Gaur egungo teknologia eta baliabideekin zail suertatzen zaie langileei, baldintza horiei eustea.

Hasierako helburua artxiboan energia berriztagarriak txertatzea izan bazen ere, eraikinaren ezaugarriek itxi dute bide hori; efizientzia energetikoaren bila joan dira, beraz, espazio bakoitzerako klimatizazio sistema bat aukeratuz.

Batetik, biltegitratze geletan, aire bidezko klimatizazioa ezarriko dute, 8 gela horiek 18-20 gradutan eta %55-%60ko hezetasu-

narekin mantendu behar baitira, urte osoan barrena. Bero bonbak baliatuko dituzte.

Bigarrenik, argazki dokumentuak dauden espazioan, 16-18 graduko tenperatura eta %30-%40ko hezetasunari eutsiko diote, hozkailu sistema bidez.

Azkenik, bulego, kontsulta gela eta bilera geletan 21 eta 25 gradu bitarteko tenperatura mantentzeko sistemak ezarriko dituzte, bero bonba bati esker.

Aipatzekoa da, gainera, eraikin osoan argiteria aldatuko dutela, gaur egungo 480 argiak LED teknologiadun argiz ordezkatzeko.

Horrela, aurkeztutako esku-hartzearen ondoren, energia kontsumoa %60 inguru murriztuko dela aurreikusten du aldundiak: 85 tona karbono dioxido, 240 MWh eta 30.000 euro urtean.

DOKUMENTU BAKARRAK

Bihar hasi eta larunbatera bitarte, Gipuzkoako Artxibo Oroko-

rrak ate irekien jardunaldiak egingo ditu, obrei ekin aurretik. Denis Itxaso Kultura diputatuak azpimarratu du, herritarrek artxiboa ezagutzea nahi dutela, jakintza eta ikerketa sustatzeko gune irekia delako.

Bisitak egiteko ez da aurrez ize-na eman beharrik izango, eta goiz eta arratsalde ariko dira. Goizetan, 11:00etan eta 13:00etan izango dira euskarazko saioak, eta 12:00etan gaztelarazkoa.

Hilaren 7tik 9ra izango dira bisitak; Altzoko Handiaren testamendua dago ikusgai, besteak beste

Arratsaletan, berriz, 17:00etan izango dira euskarazko saioak, eta 16:00etan eta 18:00etan gaztelarazkoak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko gobernu erakundearen artxibo historikoan batzar nagusiek eta aldundiak 500 urtez baino gehiagoan pilatutako dokumentuak daude, baina baita bestelako erakundeetatik nahiz norbanakoengatik jasotakoak ere. Horrela, dokumentu bitxi eta bakarrak ezagutzeko aukera izango da bisita gidatuetan.

Besteak beste, Migel Joakin Eleizegi Altzoko Handiaren testamentua izango da ikusgai; Alegiako eskribauak idatzi zuen, haren heriotza baino 15 egun lehenago, 1861ean, eta Eleizegiren sinadura originala ikus daiteke.

Bide beretik, Carlos Amadeo Saboiakoak Sardiniako koroa semeari uzteko idatzitako abdikazio gutuna ere Tolosako artxiboan da; Sardiniatik Portugalera bidetan geldialdia egin zuen Tolosan, eta bertan geratu zen dokumentua.

1685eko euskarazko bertso batzuk ere ondo gordeak dituzte. Antza, Antonio Elzarzaga Eibariko bikarioak auzitara eraman zuen Migel Basterretxea herritarra, bertso iraingarriak plazan abestu zituela-eta. Amodio kontuak dituzte hizpide, eta Hirutruku taldeak kantantzen ditu gaur egun. Bada, Gipuzkoako Artxibo Orokorreko langileek azaldu zuten, eraikinean euskaraz idatzitako dokumentu bakanetako bat da aipaturiko auzia.

Horiekin batera, ate irekietako bisitetan ere ikusi ahal izango dira, besteak beste, probintziako ordenantzen koadernoak nahiz Jeronimo Larreak Santa Maria elizako artxibo izandakorako egindako apaingarriak. Azken pieza horiek, Gipuzkoan XVI. mendean egindako eskultura zibilaren lekukotasun bakarrak dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILAK

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

IRAGARKI LABURRAK

Lan bila

Kamiol gidaria eta banatzailea. Kamiol gidari-banatzailea, kamiolari edo biltegi lanetan aritzeko prest. C1 gidabaimena, CAP, takografo digitalaren txartela, karretillero titulua eta banaketan esperientzia. Autoa eta lanerako prestutasun osoa. Interesa dutenek, dei dezatela 618 25 49 60 telefonora.

Lan eskaintza

Komertziala. Logikaline enpresak lau lanpostu eskaintzen ditu salmenta puntuko komertzial lanetan aritzeko. Euskara eta gaztelera menperatzea ezinbestekoa da. Formazio sendoa eta lan-talde egonkorra. Interesa dutenek bidal dezatela curriculumara rrhh@logikaline.com helbidera.

Protokolo bat, indarkeria matxistari erantzun bateratua emateko

Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei aurkeztu die proiektua; hiru indarkeria mota sailkatu dituzte, indarkeria kasuei eman beharreko erantzun motak zehazteko

I. Urkizu Arsuaga

Aldundiak «pertsonek arteko desberdintasun txikiak duen lurraldea» bilakatu nahi du Gipuzkoa, eta helburu hori emakume eta gizonen arteko arrakalare ere bideratu nahi du, Markel Olano ahaldu nagusiak azaldu duenez. Bide horretan, indarkeria matxistaren aurkako lehen protokolo instituzionala garatu du erakundeak, administrazioei nahiz herritarrei tresna eskura jartzeko. Horrela, egitasmoa aurkezteko, Markel Olanorekin batera izan dira, Maite Peña Gizarte Politikako foru diputatua eta Miren Elgarresta Berdintasun zuzendaria ere.

Lurralde osoan 12 udalekin elkartu dira, eta tartean izan dira Berastegiko, Irurako eta Tolosako udal ordezkariak. Hain justu, Tolosako Udalak garatuak ditu, jada, bi protokolo, indarkeria matxistari heltzeko, eta bien berri eman du, aurkezpenean, Olatz Peon Tolosako alkateak.

Lehena Erakundearen Arteko Jarduerarako eta Koordinaziorako I. Udak Protokoloa izan zen, 2014. urtean plazaratutakoa, eta hainbat erakunderekin elkarlanean gorpuztu zuen udalak: Osakidetza, Asuncion klinika, Ertzaintza, Udaltzaingoa, Gizarte zerbitzak, Berdintasun saila, Migrazio saila, Bilgune Feminista eta erasotutako emakumeak.



Gipuzkoako Foru Aldundian egindako aurkezpenean izan ziren, Berastegiko, Irurako eta Tolosako udal ordezkariak. ATARIA

Proiektu hark helburu garbia zuen: «Genero indarkeria eta sexu erasoak bizi dituzten emakumei arreta hobea eskaintzea».

Bi urtera, berriz, 2016an, arazoari heltzeko beste tresna bat garatu zuten, sexu erasoaren aurrean udal departamentu bakoitzaren betebeharrak zehaztuz: emakumearen asistentzia, egoeraren kudeaketa eta informazioaren trataera, besteak beste.

PLAN AITZINDARIA

Miren Elgarresta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun zuzendaria

zendariak azpimarratu duenez, aurkeztu berri duten plana aitzindaria da: «Badira biktimak artatzeko protokoloak, baina, egitasmo honekin, indartu egingo ditugu herritarrek sentsibilizatzeko bide eta estrategiak». Elgarrestaren arabera, horrek, «zantalzarik gabe», biktimek jaso beharreko arreta hobetzen lagunduko du.

Izan ere, GFak ez du «salaketa formal hutsaren mugan» geratu nahi eta, azpimarra jarri diote gaitzespena adierazteko bideak eskaini beharrari. Horrela, zenbait irizpide bildu dituzte

proiektuan, erakundearen arteko koordinazioari begira. Besteak beste, biktimei lehentasunezko

GFaren protokoloak «salaketa formal hutsen mugetatik» harago joatea du helburu

arreta eskaini nahi diete, erantzun «azkar, koordinatu eta eraginkor» baten bitartez. Halaber, erasotzailearekiko gaitzespena adieraztea ezinbestekotzat jo dute, eta baita informazioa behar bezala kontrastatzea ere,

alarma egoerak saiheste aldera. Azkenik, prebentzio jardueren berebiziko garrantzia eman diete.

HIRU INDARKERIA MAILA, ERANTZUNAK KOORDINATZEKO

Aldundiak aurkeztu berri duen protokolo instituzionalak indarkeria matxista hiru mailatan banatu du, erantzunak ere zehazteko helburuz.

O eszenatokia delakoaren barruan, etxeko tratatu txarraren ondorioz edo sexu erasoaren ondorioz eraildako emakumeen kasuak sartuko lirateke.

1 eszenatokian, berriz, emakumeen nahiz haien seme-alaben erailketak edo erailketa saiakerak sartuko lituzke protokoloak, hiltzailea emakumearen bikotea, bikote ohia, senitartekoa, ezaguna edo ezezaguna izanda ere.

Azkenik, *2 eszenatokiko* irizpideen arabera tratatuko lituzkete, sexu erasoak, sexu abusuak, lesio larriak eta sexu jazarpen kasuak.

Proiektua abiarazteko lehen pausoa izan da aurkezpenean, baina, urtariletik aurrera, aldundiak udalekin garatuko du kontraste fasea, «helburua lurralde osoan protokolo bateratu bat izatea baita». Horrenbestez, tokian tokiko balizko moldaketak txertatu eta gero, GFaren asmoa da, protokoloa 2018ko uda aurretik erabilgarri izatea.

Tolosako hirigintza feminizatzeke eskaria egin du Berdinbidek

I. Urkizu Arsuaga Tolosa

Berdinbide Berdintasunaren aldeko eta Genero Indarkeriaren kontrako Gizonen elkarlanean eskari bat aurkeztu du, Tolosako Udalean, zinegotziak mozio gisa azter eta bozka dezaten. Besteak beste, 2018. urtetik aurrera herriko hirigintza proiektu berriei

begira jarri da elkarlanean, data horretatik aurrera «Tolosa Herri Feminista deklaratzeko» galdeginez.

Horretarako, «Tolosan egiten diren plaza, kale, etorbide eta eraikin berriek emakume izena eduki beharko dute», Berdinbidearen arabera.

Elkarlanean historiari begira ekin

dio adierazpenari, nabarmenduz, «emakumeak beti bigarren mailan eta baztertuta» utzi izan direla: «Beti egon izan dira baztertuta, eta hala daude gaur egun ere. Matxismoak, ideologia dominatzailea den aldetik, irabazi egin du eta egiten du, eta berak antolatutako gizartearen, gizonen nagusitasuna».

Horrela, indarkeria matxistak utzitako datuak ere baliatu dituzte, beren eskaria indartzeko. Batek, azaldu dute, Euskal Herrian 52 emakume bizi direla eskoltarekin; horietatik 14 Gipuzkoan. Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, 4.370 emakumek dute polizia babesa, indarkeria matxista dela-

eta. Horri, Espainian aurreko eraildako 46 emakumeren datua gehitu diote.

Berdinbidek, ordea, matxismoaren adierazpen makurren oinarritutako baztertutak nahi izan du mozioan, hirigintza feminizatzeke eskaria argudiatzeko: «Emakumeak jo eta hil ez ezik, ikusezin ere bilakatu ditugu, hainbat arlotan nabarmendu diren emakumeak ahaztuz. (...) Emakumeen eta gizonen arteko arazoa da eta, bide horretan, urrats txiki bat da, emakumeek egiten duten lana agerian jartzea».



Emanaldian parte hartuko duten gazteek, musika, dantza eta interpretazioa uztartuko dituzte. ATARIA

Errepresioaz gogoeta egiteko

Larunbatean, Bartzelonako Institut del Teatreko ikasleek 'Errepressió' antzerki lana eskainiko dute Atxulondo kultur etxean, 18:00etan eta 20:00etan

Jon Miranda Zizurkil

Carles Vallès, Clàudia Añor, Anna Bertran, Maria Antonia Salas, Pol Para eta Alba Tortras Hodei Arrastoa zizurkildarraren ikaskideak dira Bartzelonako Institut del Teatre. Elkarrekin ikuskizuna eskainiko dute larunbatean, abenduaren 9an, Atxulondo kultur etxean eta Katalunian bizi den Irene Mujika

eta Iñaki Zalakain billabonatarrek lagunduko diete musikarekin.

Musika izango da ikuskizunak izango duen osagaietako bat, baina doinuek bezainbeste garrantzia izango dute mugimenduek eta testuen interpretazioak. Diziplinartekotasuna azpimarratu du Arrastoak: «Eskolan teknika asko landu ditugu urte hauetan eta material hori guztia

aprobetxatu eta emanaldira ekarri nahi dugu, aukeratu dugun gaiaren inguruko gogoeta bultzatzeko».

Errepresioa dute aurtengo emanaldirako gaia. «Taldekide batek aipatu zuen Katalunia eta Euskal Herria politikak lotzen dituela maiz, beti gaudela borroka egin behar konstante batean, existitu ahal izateko. Gainerakoak ados agertu ginen eta horren inguruko proposamena izango da larunbatekoa». Horretarako, Mario Benedettiren *Pedro y el Capitán* antzerki lana

irakurri dute taldekide guztiek, «imaginario komun bat sortzeko». Bertan irakurritakoetatik eta beste hainbat idatzietatik abiatu dira, gero, musika, dantza eta testuak sortzeko. Irailetik ari dira entseguetan eta Arrastoak hartu du taldea koordinatzeko eta zuzentzeko ardura.

ZIRKULUAN ANTOLATUTA

Laugarren aldia da Bartzelonako ikaskideekin gisa honetako emanaldi bat antolatzen duela Arrastoak. Lehen bi urteetan esketxak prestatu zituzten eta iaz proposamen berritzaile bat egin zuten mikro-teatro formatuan. Joxe Arregi plaza inguruko lau espazio baliatuta, antzerkia jarraitzeko publikoa alde batetik bestera erabili zuten. Aurten, toki bakar batean, Atxulondo kultur etxeko areto nagusian emango dute *Errepressió* lana, baina aktoreen inguruan zirkuluan antolatuko dute publikoa: «Bizkarra ematen ari bazait aktorea, nire parean dagoenaren aurpegia ikus dezaket eta bestearen espresioan irakurri aktoreak interpretatzen duena. Esperimentu polita izango da».

Hasiera-hasieratik horixe izan baitu helburu Arrastoak emanaldi hauekin: proposamen ezberdinak egin eta herritarren artean «antzerkiaren inguruko ezagutza handitzea». Zizurkilgo Udalak horretarako emandako laguntza eskertu du, «nirekin oso ondo portatu dira eta lana erraztu didate, dena ongi atera dadin», esan du gazteak. Sarrera ez dute kobratuko baina emanaldiaren irteeran gerturatutakoek beren borondatea emateko aukera izango dute. Modu horretara eskertu ahal izango dute zortzi gazteek hilabete hauetan egin duten lana.

Torturatuta erail zuten Joxe Arregi herritarraren omenezko monolitotik gertu, errepresioa hezur-mamitu zen tokitik metro gutxitara eta urte batzuk geroago, Katalunia eta Euskal Herriko gazteek gaiak duten ikuspegia ikusteko aukera izango da, dantza, antzerkia eta musika espresibide bezala hartuta.

ERREPRESSIÓ

Abenduak 9, larunbata

18:00 eta 20:00. Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean eskainiko dituzte emanaldia. Bartzelonako Institut del Teatreko zortzi ikasleek parte hartuko dute eta sarrera doakoa izango da. Bi emanaldien amaieran, hori bai, borondatea jasoko dute parte hartzaileek.



«Bidaia hau, nire ikaskideei nire gauzak erakusteko baliatzen dut»

HODEI ARRASTOA
AKTORE ETA DANTZARIA

J.M. Zizurkil

Ikasketa amaierako proiektua burutzen ari da Hodei Arrastoa (Zizurkil, 1995) eta urtero bezala ikaskideekin bere jaioterrira itzuliko da. Emanaldia «aitzakia» bat dela dio, katalanei gure ingurunea erakusteko.

Zer erakutsiko diezu zure ikaskideei?

Bidaia hau, urtero, emanaldia eskaintzeko baliatzen dut baina baita nire ikaskideei nire gauzak erakusteko ere. Sagardotegiren batera ere joaten gara urtero eta Donostia, Gaztelugatxe eta horrelako tokiak bisitatzen ditugu. Aurten, Zarateko Bentan gau bat pasatzeko asmoa dugu.

Emanaldirako gaia aukeratzekoan zerikusirik izan al du Katalunian bizi den egoerak?

Pentsatzen dut baietz, baina argi adierazi nahi dugu ikuskizunak ez duela bere horretan hilabete hauetan Katalunian gertatutakoa kontatzen. Errepresioaren inguruan gogoeta egin nahi izan dugu, orokorrean. Eta gero, gertatutakoari buruzko zehaztasun argi-argiak ere agertuko dira emanaldian.

Zer moduz bizi izan duzue Katalunian gertatutakoa?

Gure institutua hauteskunde eskola zen urriaren 1ean. Aurreko egunetan gunea okupatu eta erreferenduma egin zen garaian zain zegoen jendearekin egon ginen, animatzaile gisa.

Zein asmo dituzu behin ikasketak amaituta?

Ea non sartzen dudana muturra. Bartzelonan sare bat sortu dut eta ikaskideekin jarraitu nahi nuke proiektuak aurrera eramaten. Baina euskal zinema munda ere interesatzen zait. Ez dut ezer baztertzeko.

BERTAKO PRODUKTUAK SALTZEN DITUGU

ERRAZKIN ARTOLA
harategia

EUSKAL HERRIA KALEA 53, IBARRA
TFNO 943 24 94 29



«Txapela irabazteko aukerak nire lana ondo egitean daude»

MAIDER MENDIZABAL PILOTARIA

Lau t'erdiko esku pilota txapelketaren finala jokatu da gaur, 12:00etan hasita, Sopelan. Anoetarraren aurkaria Leire Etxaniz izango da

Asier Imaz Anoeta

Laboral Kutxa Emakume Master Cup lau t'erdiko txapelketa 70 pilotarekin hasi zen. Lehen maila eta elite mailako kanporaketak jokatu ondoren, bi finalak gaur jokatu dira, Sopelan. Maider Mendizabalek (Anoeta, 1977) elite mailakoa jokatu du.

Historia egiten ari zarete: eskuz lau t'erdian orain arte ez delako txapelketarik jokatu. Horrela ematen du. Pixka bat handietsi egin da, baina gustura gaude. Hasiera bat dela uste dut, eta ea behintzat jendea esnatzeko balio duen.

Atea zabaltzen ari zaretela ematen du.

Antolatzaileek horregatik antolatutela uste dut. Helburu nagusia parte hartzea bultzatzea da. Gero maila ematen bada, txapelketa eta final ona ateratzen baldin badira, askoz hobe.

Adibide bezala Nagore Aroze- na lizartzarra hartu daiteke. Gaztetxotan esku pilotan maila bikaina erakutsi ondoren, ibilbiderik gabegertu zen.

Azkenean garrantzitsuena hori da. Eskuz ibiltzen baldin bazara 12-13 urtera arte, gero, mutilekin jarraitu behar baduzu indar aldetik alde izaten da. Horrela, gutxienez nesken aurka jokatzeko aukera daukazu; eskuz jarraitzeko aukera daukazu.

Finala telebistaz zuzenean emango dute. Presio gehigarria edo esperientzia zerbaite- tarako dago.

Hasiera batean lasai nago. Gero hasieran pixka bat urduri egongo naizela uste dut, baina ez telebista dagoelako edo ikusten jendea elkartuko delako, final bat delako baizik; aurkaria oso ona delako eta nire onena eman nahi dudalako.



ANE URKOLA

Eta arrazoi horiei, «txapela irabazi nahi duzulako» ghituko genioke.

Bai, noski. Lehenengo gauza, ordea, nire lana ahalik eta hoberen egitea da, txapela irabazteko aukerak hor sartzen direlako.

Finala alde batera utzi gabe, zer moduzko txapelketa egiten ari zara?

Egia esan uste onena baino askoz hobe. Buruz buru guk ez dugu inoiz jokatu; txapelketa honetan bakarrik aritu gara baina. Horrek kantxa osoa hartu behar duzula esan nahi du. Egia da zabalera pixka bat moztu egiten dela, baina finaleko pilotalekuan kantxa guztian jokatu dugu. Beti izaten duzu zailtza hori: ea nola moldatuko zaren. Baina orain artekoa kontuan hartuta, oso ondo joan zaidala esan dezaket.

Lehen, aurkari zaila izango duzula esan duzu. Nolako pi-

lotaria da Leire Etxaniz bizi- kaitarra?

Oso ona da. Bi esku onak dauzka. Indartsu jotzen du pilota, nik baino dezente indartsuago. Azkarra da eta hutsegite gutxi egiten ditu. Pilotari konpletoa da. Agian bere ahulune bakarra, bere jokoa eutsi eta eutsi horretan oinarritzen dela. Gutxi arriskatzen du; airez gutxi sartzen da. Ea hor aukerak sortzen zaizkidan, eta airez sartzea dudana. Kontua da pilota asko altxatzen duela. Berari ezker bilatu behar diot, ona izanagatik, eskuina baino okerragoa duelako. Ea jokaldi batzuk egiteko aukerak sortzen zaizkidan.

Kontuak horrela, jokoa nahastan saiatuko zarela dirudi.

Jo eta jo hasten baldin banaiz, ez dut ezer irabaziko. Berak indartsuago ematen dio, eta biziago. Lau t'erdia bere muga du, eta hori niri ondo datorkit. Bestalde,

ANOETAKO UDALAREN DEIALDIA

Finala gaur jokatu da Sopelan (Bizkaia), 12:00etan. Anoetako Udalak herritarrak gonbidatu ditu Sopelako pilotalekura, eta Maider Mendizabal herritarra animatzera joateko deia luzatu du. Horrez gain, pilotaria zoriondu eta txalotu du, finalean egotea ez delako nolanahiko lorpena.

jotzera joanda, eskua txikitu besterik ez nuen egingo. Aukera dudanean moztu saiatuko naiz, edo bi paretak bilatzen, edo dejada, airea...

Zerbaitetan irabazten baldin badiozu, esperientzia da.

Askok jokatu du naiz, urteak dauzkadalako. Maila desberdinetako aurkarien aurka ibili naiz, baina munduko esperientzia guztia izanda ere, desastre jokatu baldin baduzu, badakizu zer daukazu. Bera ni nekatzen saiatu da, eta ni bera mugitzen ahalegindu naiz, ea bera nekatzea lortzen duen.

Botilero bezala zein eraman- go duzu?

Botilerorik ez dugu sekula izan, baina telebistaren kontu horrekin, botileroa zein izango zen galdetu ziguten. Nik Iñaki (Alijostes) nire senarrari galdetu nion. Futbol zalea da bera, baina azken urteetan nirekin pilota dezente jarraitu du. Ikusmen ona dauka, baina bere kezka ere baditu. «Nik jokaldi bat esan eta ezin baldin baduzu egin?», galdetzen zidan. Hori nik erabakiko nuke, ahal dudana edo ez. Kontua ez da hori. Botileroak kantxan dagoenak ikusten ez duena ikusi behar du, eta pilotariari hori ikustarazi. Alde horretatik asko gustatzen zait berak nola jarraitzen dituen partidak; ondo egiten du lan hori, eta niri, gustatzen zait.

Beotibarren lau txapelketa jokatu dira

A. Imaz

Gaur eta ostiralean Tolosako Beotibar pilotalekuan lau txapelketetako partidak jokatu dira. Esku pilotaz gain, zesta punta ere protagonista izango da. Izan ere, Xistera Zirkuituaren barruan dagoen IV. Elolaren Oroi-menezko Zesta Punta Txapelketaren finalak jokatu dira ostiralean, hilaren 8an.

Partida erabakigarrien aurretik, 09:30ean, Beotibar Zesta Punta Elkarteko gazteenak erakustaldia eskainiko dute.

Finalak 11:30ean hasiko dira. Gazteen mailan, Bixente Gonzalez eta Ander Lekubek Godwyn Baptiste eta Maxime Berdoulayen aurka jokatu dute. Nagusietan, Antxon Alberdi-Theo Laborde eta Alex Ibañez-Anton Gandiaga izango dira finalistak.

Alex Ibañezen kasua azpimarragarria da. Beotibar elkarteko pilotaria da tolosarra. Larunbatean, finalerdietan, gazteen mailan eta helduen mailan jokatu zuen. Gazteenetan ez zuen finalerako txartela lortu, baina helduekin bai.

Ostiralean bezala, gaur ere zesta punta partidak jokatu dira Tolosako Beotibarren. Gipuzkoako Txapelketaren barruan, Beo-

tibarko bikoteak nagusien lehen mailako finalerdia jokatu du Andoingo Gaztelekuko aurka. Etxekoak, Alex Ibañez eta Arkaitz Izagire izango dira.

Aurrez, Euskal Herriko Nazio Mailako Pilota Elkarteen Txapelketako partidak jokatu dira, 17:30ean hasita. Gaur Zazpi Iturri eta Epleko pilotarien txanda izango da. Amezketarren izenean Egiguren, Zubiria eta Peru-

Labaka-Aizpuruk jokatu dute. Aurkariak, Chiapuso, Urmeneta, eta Taberna-Zangitu izango dituzte.

ALTUNA III.A, OSTIRALEAN

Hilaren 8an, 17:00etan, profesionalen jaialdia dago Beotibarren. Binakako txapelketako partidak Jokin Altuna eta Martijak Olaiola II-Imazen aurka jokatu dute.

Iñigo Otaegi Zizurkil

Egunero egiten du Urtzi Regerok (Zizurkil, 1988) euskararen aldeko hautua; eta hauspotzen joan den hartu-eman hertsia horrek eraman du Euskal Filologian irakasle izatera. Gradua behin amaituta, ikasle ohi batzuek Aziti Bihia izeneko elkarteak sortu zuten, eta euskara ertz andanatatik ikertzen dihardute.

Euskal Filologiako ikasketak eginez ekin zenion bideari.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, dagoeneko garbi nuen nire geroaldiak euskararen bueltan behar zuela ibili. Gainera, antzematen nuen gabezia zientifikoa zegoela euskal istorio eta mitoen inguruan; eta horien gaineko lan sakonak egitea nuen erronka. Hizkuntzarekiko sentiberatasunak eta kuriositateak ere, erraztu zuten erabakia.

Esango zenuke, hain justu sentiberatasun eskasia dagoela euskal hiztunen artean?

Motibazio falta izan daiteke. Euskal hezkuntzan, hizkuntza guztiei ez zaie trataera bera eskaintzen. Nik alternatibarik esku artean ez daukat, baina, euskal errealtatea ez da bera, leku batean edo bestean, ezta euskararen sona ere. Hezkuntzan arakatu beharra dago joera aldatzeko. Euskara landuko baltitz gainerako hizkuntzak bezalaxe, eta euskararekiko errespetua sustatuz gero, sentiberagoak izango ginateke. Hiztunen kopuruak nabarmen egingo luke gora.

Urtzi Regeroren zerrendan, Kronologia erlatiboaren gaineko ikerketa ageri da lehenbizi.

Gradu garaian eskuratutako beka bideratu nuen, euskarak azken 2.000 urteetan izandako aldaketak aztertzeko. Egun, euskarari darion arnasa nola sortu den nahi nuen ikertu, historiako oinarrietatik harago. Masterra egin nuen gero, eta Erdi Aroko euskararen kanpoko eta barneko historiaren azterketan, ohorezko matrikula lortu nuen. Erdi Aroko lekukotza guztiak (izen-abizenak, esaldi laburrak...) sistematikoki aztertu, eta hizkuntzaren ezaugarriak zerrendatu genituen, barneko historia laburbilduz.

Azken ekarpena, goi-nafarreraren arkaiko eta zaharraren testuen tesia izan da.

Masterra egin ostean, zalantza handiak izaten dira tesiaren muinaren gainean. Garbi nuen Filologiarekin zerikusia zuen zerbait egin nahi nuela. Ohartu



ATARIA

«Tesiari liburu batekin eman nahi diogu jarraipena»

URTZI REGERO EUSKAL FILOLOGIAN DOKTOREA

Zizurkildarrak euskara du ofizio, Euskal Filologian irakaslea da egun. «Hizkuntzarekiko sentiberatasunak eta kuriositateak» abiatu zuen bere ibilbide profesionala.

ginen, euskalki asko aztertzen ari zirela, tartean bizkaiera zaharra edo zuberera; eta pentsatu genuen goi-nafarrerak ere merezi zuela ikertua izatea. Aukera polita ikusi genuen tesi baterako, eta istantean, 1750. urte aurreko goi-nafarrera eta arkaikoa idatzitako testu guztiak zukutzen hasi ginen. Horrela, euskalki eta ezaugarri andanarekin egin dugu topo, kronologia aintzakotzat hartuta. Ez da ordea, ezaugarriak identifikatzea soilik, horiek nondik datozen, zein euskalkitan islatzen diren... Dezente sakondu dugu.

Ezaugarri eksklusibo eta ez-esklusiboen konbinazioak egiten du euskalkia berezi.

Hori da. Dialektoak aztertzean, lehendabizi egiten dena da, gainerako euskalkiek ez dituzten ezaugarriak topatzea. Muturreko euskalkiek badute estatus berezi bat, hain zuzen, ezaugarrietan ezberdinak direlako; bizkaiera kasurako. Kokaleku geografikoak eragina du euskalkietan; erdialdean geratzen diren euskalkiek, iparralde eta hegoaldean jasotzen dituzte ezaugarriak. Horrenbestez, gipuzkeran ez da hain erraza ezaugarri eksklusiboak topatzea. Nafarreraren kasuan, eksklusiboak eta orokorrak diren ezaugarriak konbinatzen dira.

Erromantzeen zantzuak ere nabariko dira goi-nafarreraren.

Kontuan hartu behar da goi-nafarrera dela eremu handiena izan duen euskalkia. Eragina izan baldin bada, euskara galdu egin da, eta erromantzeak hartu du indarra. Eragin soziolinguistikoa bai xehetzen ditugu hainbat ideia, alabaina, hizkuntzan izan dituen aldaketaz, gutxi.

Iruñea, erdialdeko euskalkiaren ardatz gisa hartu izan da, eta dialektoak sortu izan dira foku horren bueltan. Erdi Aroan, Iruñea euskal foku nagusia zela kontsideratzen zen, eta euskalki askoren ezaugarri bereizgarriak bertan sortu ziren. Gainerako hizkuntzek egin dutena da, ardatz horiek ahuldu. XVI. mendean dauzkagun berrikuntzak, Gipuzkoara edo Lapurdira arte iristen dira. XVII. mendean aldiz, ez dira Nafarroatik ateratzen; gaztelaniak hartu zuen aginte makila.

Engungo nafarrera zenbateraino da lehengo hizkeraren isla?

Gaur gaurkoz hitz egiten den nafarreraren ezaugarri eksklusibok, XVIII. mendean dute oinarria. Aztertzeke dago oraindik, goi-nafarrerak gipuzkera zaha-

rrarekin izan duen hartu-eman, eta zenbaterainokoa izan den. Euskalkiak tenorez tenore bereizten joan dira, eta baliteke, orain 500 urte bi euskalkiak bakar izatea.

Zer mintzoeekin lotuko genuke goi-nafarrera?

Tesiak ez du problematika ixten, are gehiago, ate gehiago zabaltzen ditu. Ikusi behar, zer gertatu den euskalkien artean; oraindik, asko dago ikertzeko. Bide eman dezala beste lan batzuetarako.

Hartzaileak nola hartu du tesia?

Oraingoz, zabalkunde handirik ez du hartu. Ingurugiroak esku-zabal eta interes handiarekin

Antzematen nuen gabezia zientifikoa zegoela euskal istorio eta mitoetan; horien gaineko lan sakonak egitea nuen erronka



Tesiak ez du problematika ixten, are gehiago, ate gehiago zabaltzen ditu

hartu du, eta iritzi onak eman dizkigute bueltan. Ondobidean, tesiari liburu batekin eman nahi diogu jarraipena. Printzipioz behintzat, gure mundu txikian, oso harrera ona hartu du.

Instituzioen aldetik, eskaintzen zaizuen laguntza nola-koa da?

Zabalkundea ez da guk nahi bezalakoa. Unibertsitateko lanek, oro har, ez dute oihartzunik izaten. 2012an, Aziti Bihia elkarteak sortu genuen ikasle izandako batzuk, eta egun, euskarari dibulgazio zientifikoa emateko gabil-tza lanean. Liburuek oinarri zientifiko ahula izaten dute normalean, eta gure helburua hain zuzen, euskarari oinarri zientifiko ematea da. Gainera, zenbait ikastaro ireki antolatzen ditugu Gasteizen bertan, jendearentzat liburu zientifikoak irisgarri izan daitezen.



HELDUEI ESTREINAKOZ

Sukaltalkak helduei zuzendutako tailerra jaso zuen larunbat goizean. Sonia Tapia sukaldaria eta Amaia Diaz de Monasterio nutrizionista aritu ziren irakasle lanetan, eta Tolosako Azokaren dinamizatzaileak, Ainhoa Zabalak, esan zuenez, saio aberatsa eta osatua izan zuten. Helduei zuzendutako lehena izan da, baina gehiago etorriko direla aurreratu du Zabalak. ATARIA

✉ GUTUNA

Tailer bikainak

Tolosako Azokak, Tolomendi Landa Garapenerako Elkartek eta Sonia Tapiasukaldariak elkarlanean, aurtengo urtean aurrera eramán dituzten tailerrak bikainak izan direla jakinarazteko idazten dut.

Tailerren bidez etxeko txiki zein helduei gure baratzak gehiago ezagutzen lagundu digute, baita bertatik jasotzen diren barazki goxo eta osasuntsuak baliosten ere.

Barazkien jatorria ezagutu eta Tolosako Zerkausia eta Berdura Plazako mahai gaineraino iristeko dagoen lan gogorra ere ikusi

dugu geure begiekin. Bejondeie-la, larunbatero berain eskaintza ederrenekin gerturatzen diren baserritarrei!!

Soniak, sukaldari trebea dela erakustez gain, bere sekretutxoak ere irakatsi dizkigu, geure egunerokotasunean garaiarako produktuak erabiliz plater goxoak sukaldatu ditzagun.

Benetan txalotzekoa eta eskertzekoa, beraien prestutasun eta irribarre alaienarekin, Tolomendiko teknikari eta azokako dinamizatzaile den, Ainhoa Zabalak eta Sonia Tapia sukaldariak, egin duten lana.

Eskerrik asko eta datorren urtean ere elkarrekin tailerrak egiten jarraitzeko aukera izan dezagula.

Leire Esnaola Tolosa

Berrobiko XXVI. Frontenis Txapelketa, bukatzear

Etzi izango dira finalak; antolatzaileak kezkatuta daude azken asteburuko hainbat gorabeherarekin. Hala eta guztiz ere, finaleko partidak erabakita geratu dira.

Erredakzioa Berrobi

Pasa den larunbatean Frontenis Txapelketako ligaxkako azken jardunaldiak jokatu zituzten mutilen banakako zein nesken txapelketetan. Mutilen binakakakotan, aldiz, final laurdenak jokatu zituzten. Igandean txapelketa guztietako final erdiak jokatu zituzten.

Pasa den asteburuko partidak «ohiko martxan» joan zirela esan dute antolatzaileek, «ezusteko handirik gabe», alegia, baina kezkatu daudela ere aitortu dute: «Nahi baino ordezko gehiago izan ziren eta pilotari batzuk ez ziren azaldu igandeko partidetara, kezkatuta gaude». Hala eta guztiz ere, finaleko partidak erabakita geratu zirela esan dute.

OHOREZKO PARTIDAK

Finalak ostiralean izango dira, 15:30etik aurrera. Goizean, dena den, hirugarren eta laugarren postuetako lehiak izango dira. Ohorezko partidak izango dira batetik, eta hauetan, mutileta binaka Xabi Goikoetxea-Ion

Nahi baino ordezko gehiago izan dira azken partidetan eta antolakuntzakoak «kezkatuta» azaldu dira

Jauregi Bruno Iruña-Iker Iruñaren aurka ariko dira. Txapelketa mistoan Asier Jauregi-Nagore Esnaola Xabi Zubiria-Leire Jauregi izango dituzte aurrez aurre. Nesketan binaka Nuria Garate-Edurne Argaia Leire Sagastibel-

tza-Goretti Sagastibeltza izango dira lehian. Eta mutiletan banaka Xabi Goikoetxea eta Julen Garaiburu ariko dira nor baino nor.

Finaleko partidak aldiz, hauek izango dira. Mutiletan binaka Xabi Zubiria-Aitor Erauskin Odei Arregi-Edu Lobatoren aurka; txapelketa mistoan Yeray Otaegi-Kristina Urbietan Niko Artola-Nagore Lizardiren aurka; nesketan binaka Ihintza Imaz-Maialen Ezeozala Aitziber Zabaleta-Enara Lasarteren kontra; eta mutiletan banaka Ugaitz Renobales eta Odei Arregi ariko dira.

Behin finalak jokatuta, final erdietara iritsi diren kide eta antolatzaileak afaltzeko elkartuko dira herriko Bide Ona elkartearen.

Hilberriak eta urteurrenak

atariaan jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan
DOAN

ESKELAK •
ataria@ataria.eus •
Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera
18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 16:00ak arte
hartzen ditugu



**Juana
Goikoetxea Zabala**

(Aitziber Irazusta gure lankidearen ama)



Goierriko mendien magalean...



URKIPE
HERRI ESKOLA



bide onak
eskola, elkar, herri, elkar

Itsasondoko Urkipe Herri Eskola

ITSASONDON, 2017ko abenduaren 6an



Juani Goikoetxea Zabala

*Arratsaldez Larraitzen
biltzen ginaden gu
hasi musean eta
bukatu berandu.
Une goxo ugari
igaro ditugu.
“Juani” beti gogoan
izango zaitugu.*

Larraizko karta jokuko lagunak

ZALDIBIA, 2017ko abenduaren 6an



Juani Goikoetxea Zabala

*Goizez lehenengo Arkakatikan
hankak berotzeko buelta
gero kafea lagunartean
txutxumutxu, berriketa
adar jotzean edo serio
beti tajuzko hizketa
gure ondoan aulki bat “Juani”
hiretzat zegoen gordeta*

Goizeko kafeko lagunak

ZALDIBIA, 2017ko abenduaren 6an



ASTEAZKENA, 2017KO ABENDUAK 6
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreata zerbitzua: 902 82 02 01



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Herri guztiak zakuan sartuta

Tripontzia Urteberriko Saria Euskal Herriko zozketa izateko anbizioarekin jaiotako ekimena da, 60.000 euroko sari nagusiarekin. Eskualdeko herri guztietan salgai dago.

Erredakzioa Tolosa

Tripontzia Urteberriko Saria esparru anitzetako eragile eta dinamikekin bat egin eta norabide berean garatzeko proiektu bateratzailea eta irekia izan nahi du. Elkarrekin lanean, komunitate gisa zer egiteko gai garen erakusteko balio dezaketen proiektuak jarri nahi dira martxan eta Tripontzia zozketa horren adibide bat da.

Euskal komunitatea bere osotasunean aintzat hartuta eta elkarren arteko loturak estutzeko asmoarekin, Euskal Herriko lurraldeak eta diasporak osatuko dute zenbaki bakoitzeko zortziko seriea.

Tripontzia Urteberriko Sariak jasotako dirua Gure Esku Dago eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua gizarte erakundearen jarduna finantzatzeko erabiliko da. Tripontziako billeteak erosita erabakitzeke eskubidearen aldeko ekimenak eta Euskal Herrian euskararen normalizazioa bideratu zein bizkortzeko egitasmoak lagunduko dira.

Bada zerbait irabazteko garaia lelodun zozketa 2018ko urtarrilaren 15ean egingo da.

SARI TRIPONTZIA

SARI NAGUSIA:
PREMIO PRINCIPAL / PRIX PRINCIPAL
60.000€

ETA SEIN A MILA (6.000) EUROKO
ZAZPI SARI
SARITUTAKO ZENBAKI BEREKO
GAINONTZEKO ZAZPI SERIEENTZAT.

UN ÚNICO PREMIO DE 60.000€
PARA EL NÚMERO
Y SERIE PREMIADO.
SIETE PREMIOS DE 6.000 EUROS

UN PRIX UNIQUE DE 60.000€
POUR LE NUMÉRO ET LA SÉRIE
PRIMÉE. SEPT PRIX DE 6.000€
POUR LE RESTE DES SÉRIES
DU NUMÉRO PRIMÉ

2018ko urtarrilaren 15ean
egingo da zozketa.
El sorteo se celebrará
el día 15 de enero de 2018.
Le tirage aura
lieu le 15 Janvier

bada zerbait irabazteko garaia
ya toca ganar
il est temps de gagner



www.gureeskudago.eus
www.kontseilua.eus

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.info · 107.6 fm · 105.0 fm

ASTEAZKENA 06

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Deep, filma. Familia osoaren zat. 17:00etan, Leidorren.

Ikaztegieta. 17:15. 0-3 urte bitarteko haurrentzat izango da ipuin kontaketa saioa. **17:45.** 3 urtetik gorakoei kontatuko die ipuina, ipuin kontariak. Ipuin txokoa, liburuegia.

Tolosa. El invierno, filma. Patagonia-ko estantzia bateko kapataz zaharra lanetik bota dute. Haren tokian, peoi gazteago bat ipiniko dute. Bietako inorentzat ez da izango samurra al daketa. Bakoitzak bere moduan egin beharko dio aurre datorren neguari. 19:30, Leidorren.

Tolosa. Toycon, erakusketa. Art Toys-en Unibertsoa bidaia bat da. Aranburu jauregia.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan zehar. Euskal musika.

28 KANALA

12:30. Onein.

13:30. Gaurkoan Tolosaldeetik.

17:30. Gaurkoan Tolosaldeetik.

21:30. Gaurkoan Tolosaldeetik.

22:00. Gipuzkoako Plazatik. Joseba Muxika.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeetik.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunkoa. Bengoetxea Aiestaran, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 670648.

Gauekoa. Morant Barber, R. Zabala-rrera lorategiak, 1. Telefonoa: 943 673849.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Goiz hotza izango dugu berriz ere, 2-3 graduko minimak izango ditugu, behelainoa agertuko zaigu, nahiz eta azkar batean altxatuko duen. Orokorrean egun guztian hego haizea ibiliko zaigu. Horrekin tenperatura erreperatu egingo da, 11-12 gradutan kokatuz. Eguraldi eramangarriagoa izango da, tenperaturari dagokionez. Zeruian aizakariak ez, egun osoan zehar zerua oskarbi mantenduko da. Nahiz eta goi hodeiren bat ikusi, eguraldi eguzkitsua izango da.

Bihar. Hego haizeak indarra hartuko du, haizegune eta mendi inguruetan bolada gogorxeagoak izango ditu, batez ere egunaren bigarren zatian. Tenperatura ez da horren hotza izango, 5-6 graduko minimak izango ditugu, behelainoa ere apenas agertuko zaigu eta egun osoan zehar goi hodei dezente ikusiko dugu. Egunaren lehen orduetan estaliago agertuko da zerua, erdiko orduetan ostarte zabalak izango ditugu eta egunaren azken zatian hegoaldeetik eta mendebaldeetik hodei dezente sartzen hasiko dira. Eguna bukatzerako zerua estalita agertuko da.

TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu



TXULETA FESTA afaria

Abenduaren 9an, 21:00etan
Tolosako Zerkausian.

Zozketetan parte hartzeko **ASTEAZKENA 17:00ak** arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus